



KONJUNTZIO HANDIA

2020ko Abenduaren 21



Laburpena

Gaurtik eta 2020ko abenduaren 21erarte, konjuntzio handia jarraitzea proposatzen dizuet. Planetak zeruan mugitzen direla nabarituko dugu. Konkretuki Júpiter Saturnora itxuraz gerturatzeko joango da, berarekin bat egin arte. 60 urte pasa beharko dira antzeko zerbait ikusteko aukera berriz izateko.

Aholkua: Zeruko gaua ikusteko, itzali inguruko argiak.

Denbora: 2020ko abenduaren 21erarte.


AZKEN EMAITZA.

Ikasle bakoitzak gif animatu bat egin beharko du konjuntziaren jarraipenaren argazkiekin, non Jupiterren mugimendua, Saturnoruntz nabaritu den. Eta fenomenoaren inguruko iritzi artikulu bat.

1. AKTIBITATEA: Behaketa

2020/12/21rarte falta den denboran, planeten posizioari argazkia atera beharko diozu. Begiratu hegoaldera eta bilatu planetak. Kontuz, planetak baju daudenez azkar desagertzen dira. Gauaren lehenengo orduan hegoaldera begiratu. Jupiter eta Saturno bilatzeko, zerua miatzeko dauden aplikazioen bat erabili dezakezu.

OHARRA: Argazkiak ateratzerako orduan, erabili beti fokal bera. Hau za, zoom-a egiten baduzu, beti balio berdinarekin egin.



Argazkia ateratzen duzun bakoitzean, neurtu planetan arteko distantzia ezkerreko irudietan duzun metodoa erabiliz. Datu horiekin jarraian duzun taula bete.

Planeten arteko distantzia neurtzeko, eskua erabiliko dugu. Luzatu besoa eta, begi bat itxiz, neurtu Jupiter eta Saturnon arteko distantzia angeluarra.

DATA ETA ORDUA	ARGAZKIA	DISTANTZIA GRADUTAN

2. AKTIBITATEA: Ikertu

Planeten konjuntzioak seinale gisa hartu izan dira historian zehar. Planetak zeruan mugitzea bezain normala den zerbaitek, hainbat erreakzio eragiten dituela aztertuko dugu

1. Bila itzazu bi une historian, planeten konjuntzioetaz eta esanahietaz hitz egiten dutenak.
2. Bilatu webgunean abenduaren 21eko Jupiter eta Saturnoren konjuntzioari buruzko albisteak, "gauzak" iragartzen dituztenak bereziki
3. Bilatu sareetan konjuntzioari buruzko informazioa eremu zientifikoetan zein ez-zientifikoetan, eta egin gutxienez mota bakoitzeko bi komunikazioen pantaila-kapturak

3. AKTIBITATEA: Iritzia

Sareetan inkesta txiki bat egin, jarri zure profilean konjuntzioari buruzko berria eta galdetu zure lagunei zer iritzi duten planeten mugimendu horri buruz.


4. AKTIBITATEA: Aztertu

Aztertu Jupiter eta Saturno planetak, egin fitxa bat planeta horiei buruz, eta gogoratu informazioa ateratzea, ez dela informazioa kopiatzea ". Hau da planeta bakoitzari buruz jakin behar duzuna:

- Eguzkiarekiko eta Lurrarekiko distantzia, neurtzeko zein unitate erabiltzen dugun adieraziz.
- Planetaren masa, erradioa eta satelite-kopurua, planetako tenperatura, presioa, urtea eta egunaren iraupena.
- Atmosferaren osagai kimikoa: konposatu bakoitzaren formula, izen kimikoa eta molekulak duen lotura kimikoaren mota.
- Atmosferaren koloreak eta hura osatzen duten konposatu kimikoekin duen lotura.

BALIABIDEAK:

- [NAUKAS: La gran conjunción del 21 de Diciembre de 2020](#)
- [Desde el tercer planeta: Una conjunción histórica: La previa.](#)
- [Stellarium web](#) : programa bikaina planeten mugimenduak simulatzeko.



AZKEN EMAITZA: Sortu gif bat ateratako argazkiekin, eta idatzi artikulu bat fenomenoari buruz

Artikuluak honelako ezaugarriak izan behar ditu:

- A4 orri batekoa izan behar du, 12 arial letrarekin.
- Albistearen izenburua.
- Sarrera.
- Garapena. Fenomenoaren eta behatu beharreko planeten deskribapena. Hona gif animatua hemen joan behar du.
- Planeten konjuntzioen inguruko eztabaida historikoa eta gaur egungonekoa.
- Ondorio pertsonala: zure iritzia konjuntzioari buruz.

Egilea: Carolina CLAVIJO, Sevillako IES Itacako Fisika eta Kimika irakaslea.
Itzulpena: Eduardo Zabala

